

Jakinarazpena: Eskaren emaitzarekin Tokiko Gobernu Batzarraren diktamena

Erabakiaren datuak:

Eguna	2023/10/10
Organoa	Tokiko Gobernu Batzarra

Tokiko Gobernu Batzarrak, goian aipatzen den egunean, **ondoko hau erabaki du:**

Kulturako, Euskarako eta Turismoko Ordezkaritzak, elkarteen lanaren garrantziak jabetuta, beren helburuak betetzeko ahaleginean, dirulaguntzak ematea proposatzen du, bere aurrekontu baliabideen arabera eta jarraian zehazten diren datetan Tokiko Gobernu Batzarrak onartu eta argitaratutako araudiarekin bat:

Dirulaguntzen deialdia	Oinarriak noiz onartu ziren	Oinarriak GAOn noiz argitaratu ziren
Euskara Zerbitzua. Euskararen eguna	2023/02/07	2023/02/28

JASO DIREN ESKAERAK

Guztira 5 eskaera jaso dira.

ESKABIDEEN BALORAZIOA

Organo instrukziogileak eskaerak aztertu eta gero, balorazioa egiteko xedez sortutako Balorazio Batzordeak txostena egin du eta bertan azaldu dira egindako azterketaren emaitzak

Proiektuen balorazioak eta ondorioak erantsitako txostenean jaso dira.

Horiek horrela, ordezkaritza honek honako erabakiak hartzea proposatzen dio Gobernu Batzarrari:

ERABAKIAK:

1. Behean aipatutako dirulaguntzak ematea, deialdiaren oinarriek araututakoaren arabera:

Erakundea	IFZ	Proiektua	Puntuak	Kopurua
Igeldoko Herri Kontseilua	G20578258	Euskara Zerbitzua. Euskararen eguna - Igeldoko Herri Kontseilua	80	1.600 €
Hondarpe Auzo Elkarte	G20521217	Euskara Zerbitzua. Euskararen eguna - Hondarpe Auzo Elkarte	85	1.600 €
IBAI IKASTOLAKO IKALEEN GURASO ELKARTEA	G20176079	Euskara Zerbitzua. Euskararen eguna - IBAI IKASTOLAKO IKALEEN GURASO ELKARTEA	67	1.600 €
Amarako Jai Batzordea	G20845673	Euskara Zerbitzua. Euskararen eguna - Amarako Jai Batzordea	72	1.600 €
LOIOLAKO HONTZA KULTUR ELKARTEA	G20595146	Euskara Zerbitzua. Euskararen eguna - LOIOLAKO HONTZA KULTUR ELKARTEA	70	1.300 €



2. 7.700 €-ko **gastua** 2023ko Gastuen Aurrekontu Orokorreko euskara programari dagokion 0219.060.481.02.00.2023 kontu-sailaren kontura ordaintzea. Atal honetako aurrekontua 8.260 €-koa denez, 560 euro geratzen dira erabili gabe.

3. Onartutako zenbatekoen % 70 irizpena onartutakoan **ordaintzeko agintzea**, eta gainerakoa, dirulaguntza justifikatzeko eskatutako dokumentuak aurkeztu eta balioztatzean.

4. Erabaki hau **jakinaraztea** udal iragarki-oholean argitaratuta.

Eta hala jakinarazten da, jakin dadin eta behar diren ondorioetarako :

1.- Hamabost laneguneko epea izango dela, jakinarazi eta biharamunetik, dirulaguntzari uko egiteko. Dirulaguntza onartutzat joko da lehen aipaturiko epean berariaz ukorik adierazten ez badute.

2.- Erabaki honek amaiera ematen diola administrazio-bideari eta hortaz honen aurka berrikusteko errekurtsoa harri ahal izango dela Tokiko Gobernu Batzordearen aurrean eta horretarako hilabeteko epea dagoela, edo bestela zuzenean aurkatu daitekeela bi hilabeteko epean Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Epaitegiaren aurrean.

Esandako epeak jakinarazpen hau Udaletxeko iragarki taulan jarri den hurrengo egunetik hasiko dira eta 2023ko urriaren 13an jarri da.

Donostia,

Euskara Zerbitzuaren burua